

ZIKLO-KROS LASTERKETA AÑABITARTEN

Julian Albistur Aranburu

Etxean, altxor bat bezala ongi gordetako karpetari irekitzeko ordua heldu zaio. Izenburuak honela dio: "AÑABITARTEKO ZIKLO-KROS LASTERKETA EUSKARA TALDEAK ANTOLATUA (1980/12/27)". Barruan hor daude oraindik: zirkuituaren planoak (xehe-tasun handiz espreski egina, altimetria eta guzti), sarrerako txartelak, kartelak, esku-egitarauak, zozketarako txartelak, Federazioko agiriak, araututako sariak, eskariak, baime-nak, egunkari zatiak (*Egin*, *El Diario Vasco* eta *Deia*)... Lantxo hau idazteko, nahikoa dirudi. Hala ere, egunkarietako argazkiak kalitatea galdu dute eta hoberik ez dut aurkitu, saiatu arren. Egun hartan, argazkiak atera gabe ere, bagenuen nahikoa lan.

Atzo izan zela badirudi ere, 25 urte luze igaro dira geroztik; belaunaldi bat. Aspaldiko kontuak direla ulertzeko, bi aipamen nahikoak dira:

1. Madrilgo Parlamentuan, Tejerok gidatutako eraso lotsagarri hura (1981/02/23), 2 hilabete beranduago gertatu zen, egoera kezkarria sortuz. Latza izan zen gero TVEn *demokrazia* eta antzekoak sarri entzuten ziren garaian.
2. Realak, Gijonen irabazitako lehen Liga (1981/04/26), 4 hilabete geroago. Aupa Real! Zoramena izan zen hura. Orduan ez zen atzeritarren beharrik txapeldun izateko. Orain, kanpotar asko eta paltal dabilza.

Hogeita bost urte hauetan gauza asko aldatu dira eta gaurko ikuspegitik egokia iruditu zait esperientzi haren berri ematea.

Orereta Ikastolako guraso eta irakasleen kezkarri erantzun nahian, 1979/1980 ikasturtean talde bat sortu zen. Garai hartan, ikastolatik kanpo, herriko giroa erdalduna izanik, gure seme-alabek zerbait behar zutela pentsatzen genuen euskaraz goza zezaten. Horrela, talde bat eratu zen, 8 guraso eta irakasle batekin. EUSKARA TALDEA deitu genion. Pailazoak ekartzen hasi ginen, asteburuetan. Gaztedin izaten zen zita, doan gainera. Kixki, Mixki eta Kaxkamelon (gero Txirri, Mirri eta Txirribiton); Pirritx eta Porrotx...

Ikasleek gozatzen zuten eta gure lana ez zen hain astuna izaten umetxo haiek pozik ikusita. Arazoa, betikoa: dirurik eza. Fraideen antzera ibili behar diru eske. Nola-hala, ikasturtea amaitu zen eta hurrengoan, hau da 1980/1981 ikasturtean, planteamendu sakonago bat egin genuen. Dirua lortzeko ekintza bat asmatu behar eta, beste aukera batzuk baztertu ondoren, Ziklo-krosa antolatzea erabaki genuen. Nazioarte mailakoa izan behar zuen gainera, arrakasta izan zezan. Pentsatu eta egin. Talde dinamikoa zen hura gero! Ez genuen esperientziarik horretan, baina ezjakinen ausardia erakutsi genuen; gazteak izaki. 1980ko udazken hasiera zen eta ordurako Gipuzkoako Federazioak denboraldiko planifikazioa egina zuen; berandu genbiltzan. Hala ere, Abenduaren 27a, larunbata, libre zegoen; beraz, aukeraketa samurra izan zen: egun hura guretzako. Errenterian, ustez behintzat, ez zen aurrez horrelako probarik egin; inguruan bai. Geroztik ere ez da antolatu; beraz, historiarako hor geldituko da. Aipatzea merezi duela uste dut; jasota geldituko baita.

Intentsitate handiko lana izan zen hura; ez genekien ongi non sartu ginen, baina zaleak izanik eta lanerako gogoia, ilusioa eta sasoi soberan, ziur geunden gauzak ongi eginda helburuak beteko genituela.

Orereta Ikastolako Gida Batzordearen onarpena lortu genuen Añabitarten zirkuitua prestatzeko, beraien kezka uxatu eta gero. Garai hartan Iñaxio Oliveri zen lehendakari.

Gipuzkoako Federazioko bileretara joan, beste antolatzaileekin hitz egin, baimenak lortu, bazterrak ongi jorratu diru eske, propagandaz arduratu, irratitik hitz egin jendea animatzeko, Donostian autoarekin propaganda berezia egin hiriburuan (baimena lortu eta gero), Udalari dirua eta laguntza eskatu (eta lortu), beste gurasoekin bilerak egin... Lan asko pilatu zitzaigun.

Burokrazia gainditzeko erakunde federatu bat behar genuen. Herrian geneukan, laguntzeko prest: *Club Ciclista Renteria*.

Hiru txirrindulari atzerritar ekartzea erabaki genuen: Martin De Cook, Joseph Meissen eta Dieter Uebing. Joxe Mari Ezeiza oiartzuarraren laguntza izan genuen horretarako. Aski ezaguna da, gaur egun ere, gizon honen lotura txirrindularitzarekin. Estatu mailako espezialista onenak, profesionalak zein afizionatuak, Añabitartera ekartzea lortu genuen, doan gainera. Hemen izan genituen Iñaki Maiora, Joxe Mari Iurrebaso, Juantxo Gorostidi, Benito Duran, Xabier Izuzkiza,

Medina... Salbuespen gisa, Iñaki Vijandi ez zen azaldu.

Iñaki Maiora, gero garaile gertatutakoa, kobratu gabe etorri zen, Pontziano Arbelaitz (orduko Estatu mailako hautatzailea) oiartzuarrari esker. Txomin Perurenak lagunduta (Bixente, bere anaiak, zubi lana egin zuen) lortu genuen errepideko 2 txirrindulari ospetsu etortzea: Marino Lejarreta eta Alberto Fernandez. Ez ziren edozein garai hartan.

M. M. Lasa, oiartzuarrak, garai hartako errepideko txirrindulari ospetsuak ere parte hartu zuen, guk erregututa. Egungo txirrindulari profesionala, Gaizka, bere semea da.

Jordi Ruiz Cabestany (Pelloren anaia) ere, errepideko profesionala, hemen izan genuen.

Mikel Ugartemendia herritarra ere, Añabitarten izan zen.

Luxu eta gozamen handi bat izan zen horrelako taldea Añabitarten ziklo-krosa korritzen ikustea.





Lasterketa iragartzen zuen kartela



Sarrerako pegatina



Zozketarako txartela

PARTICIPANTES	
PROFESIONALES	AFICIONADOS
DORSALES	DORSALES
1.º Martín De Cook	10.º Iñaki Vijandi
2.º Joseph Meissen	11.º Medina
3.º Dieter Uehing	12.º Benito Durán
4.º Marino Lejarreta	13.º Xabier Iruskiza
5.º Miguel M.º Lasa	14.º Jesús M.º Larrarte
6.º Iago Ruiz Calbetos	15.º Jesús Soraluze
7.º José Mari Yébenes	16.º Eusebio M.º Maestre
8.º Juanxo Goenadi	17.º Jon Eguarte
9.º Iñaki Mayora	18.º José R.º Izquierdo
Servicio de Autobús GRATUITO Salida del Cino Reina 1º Autobús 15 horas última salida 15,45 Habrà servicio de regreso	19.º Juan Yébenes
	20.º Mikel Ugarramendia
	21.º José Luis Berrojo
	22.º Federico Izquierdo
	23.º Pedro San Julián
	24.º Pablo Izquierdo
	25.º Juan Luis Sainza



Txirrindularien zerrenda, euren zenbakiekin. Aldaketa batzuk sortu ziren gero



Eguraldiak ez zuen batere lagundu. Urteko egunik txarrenetakoa gertatu zen. Euria, kazkabarra, hotza, haize bolada izugarriak... neguari berez dagokiona. Ez zegoen gure esku, eguraldiarena; saiatu bai, saiatu ginen: Mari Asunek Zarauzko Klarisei eskainitako 13 arrautzek (*fraideen dozena*) ez zuten miraririk egin; Alvarez Usabiaga, orduko eguraldi-gizonak iragarritakoa, tamalez, bete-betean asmatu zuen egun hartan, askotan kale egiten bazuen ere. Eguraldiak ziri ederra sartu zigun: bezperatik iñuxente.

Zirkuitua 27an, egun berean, goizez prestatu genuen; hotzak eta blai eginda geunden; lur jota. AñabitarTEko baserrian bazkaldu (Kontxik jarritako babarrunak, oso onak, azkar irentsi genituen) eta arratsalderako dena prest zegoen. Ikusleen zain geratu ginen, eguraldiarekin kezkatutik.

Hala ere, jendearen erantzuna bikaina izan zen: 1500 pertsona inguru azaldu ziren AñabitarTEko lasterketa ikustera. Eguraldi ona egin izan balu, kopuru hori seguruenik, bikoiztu edo hirukoiztu egingo zen.

Planoan ikus daitekeen bezala, 1800 metroko zirkuitua prestatu genuen baserri inguruan, 12 itzulirekin 21,6 km osatzeko. Eguraldiaren eraginez, lokatza medio, Pontziano Arbelaitzen gomen-dioari erantzunez, 10 itzulira jaitsi zen, 18 km osatuz.

	SAILKAPENA	DENBORA	SARIA	SARI BEREZIA
1.	Iñaki Maiora	54:43	15.000 Pezeta	
2.	Dieter Uebing	55:07	12.000 Pezeta	5.000 Pezeta
3.	Joseph Meissen	56:08	10.000 Pezeta	4.000 Pezeta
4.	Joxe Mari Iurrebaso	56:28	8.000 Pezeta	
5.	Martin De Cook	56:46	7.000 Pezeta	3.000 Pezeta
6.	Benito Duran	56:47	6.000 Pezeta	
7.	Xabier Izuzkiza	57:27	5.000 Pezeta	
8.	Martin Morata	58:25	4.000 Pezeta	
9.	Federico Etxabe	58:42	3.000 Pezeta	
10.	Juantxo Gorostidi	59:12	2.000 Pezeta	
11.	Josu Soraluze	1:00:38	1.000 Pezeta	

Beste txirrindulari guztiek ere 1.000na pezeta jaso zituzten, dieta gisa.

Sari bereziak, atzeritarrentzat ziren. Hauek, parte hartzeagatik aparte kobratu zuten. Beste guztiek, ez. Ehun mila pezeta kosta zitzaigun Martin De Cook, Joseph Meissen eta Dieter Uebing ekartzea. Euroak beranduago asmatuak dira.

Txirrindularitzan, ziklo-kros ezpezialitatea betidanik izan da anaia pobrea. Profesional onenek, normalki korritzeagatik kobratzen bazuten ere, guk doan ekarri genituen. Batzuk ulertzen zuten lkastolaren aldeko ekintza bat zela; beste batzuk, ez. Hala ere, oro har, erantzuna bikaina izan zen.

Gaurko ikuspegitik, sarien zerrendak lotsagarria dirudi, baina, Federazioak ezarritakoak ziren, ez guk asmatuak.

Proba egunean 100 pertsona inguru aritu ginen lanean. Herriak, ongi erantzun zuen.

Hurrengo egunetan laudorioak jaso genituen, hedabideetan ongi tratatuak izan ginen. Eguraldiarekin zorte txarra izan arren, helburu ekonomikoak erraz gainditu ziren, gehienbat aurrez egindako lanari esker. Karteletako propagandak, ondo salduta, dirua utzi zuen. Horretan Pello eta Eugenio nabarmendu ziren; marketing lan bikaina izan zen hura.

Emitza ekonomikoa 350.915 pezeta-koa izan zen. Diru-sarrera 677.141; gastua 326.226. Hasiera batean, gure helburua 200.000 pezeta lortzea zen. Beraz, eguraldi txar eta guzti, ziklo-kros lasterketak bere helburua bete zuen. Harro geunden eta animatuta hurrengo urtean jarraitzeko.

Pailazoak ekartzen jarraitugenuen ikasturtea amaitu arte. Gero, Euskara Taldea, 2 urte pasa ondoren, desagertu egin zen. Arrazoi berezirik gabe, agian nekearen eraginez; gaur arte. Gelditu zitzaigun dirua, lkastolari eman genion.

Ez genuen ordezkorik izan; 25 urte igaro dira. Pailazoarena geuk egin ote genuen? Agian, bai; ez dakit. Gaur egun pailazoak telebistan ikusten dira, orduan ez bezala. Pertsonalki, egindakoaren damurik ez daukat; astuna bezain polita izan baitzen. Niretzat, lehen pausoak izan ziren lkastolaren inguruan. Gogoratzeko moduko esperientzia, aberasgarria.

Karpetari, berriz ere, gordetzeko ordua iritsi zaio. Etxean jarraituko du; ez dakit noiz arte. Gazte sentitu naiz maiatzeko egun hauetan, orduko gauzak gogoratuz.

Bukatzeko, aipatuko dut, Añabitarten garaile gertatu zen Iñaki Maiora, azken urteotan Ormaiztegiko alkatea dela.

Iñaxio Oliveri, herriko semea, gaur egun *Mondragon Unibertsitatea*-ko Errektorea da. Aurrez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua izana.

Pontziano Arbelaitz, Alvarez Usabiaga eta Aberto Fernandez, hil ziren. Bixente Perurena, urte batzuk geroago erahil zuten. Goian beude!

Irakurle, honaino iritsi bazara, pazientzia handia erakutsi duzu. Aspertu bazaitut, barkatu. Xehetasunez kontatzen saiatu naiz, 25 urte geroago. Lkastolaren 43 urteko ibilbide luze eta oparoan, pasadizo bat baino ez zen izan. Berezia, ordea. ■





Añabitarreko eremua aldatu da. Futbol zelaiak etxeak egitean, gehiago aldatuko da